

Abian da olerki eta ipuin lehiaketa

Ipuin kontaketak ere antolatu dituzte liburutegian, irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenaren baitan

Lorea Muguruza

Datorren asteazkenetik aurrera haurrentzako ipuin kontaketa saioak hasiko dira, irakurketa sustatzeko ekimenaren baitan. Dena den, urtero bezala, olerki eta ipuin lehiaketan izango dira ekimen beraren barruan: XIII. Jon Garbizu olerki saria eta XIII. Lope Isastikoa ipuin saria, hain zuzen ere. Bi lehiaketetan parte hartu ahal izateko, lezoarra eta Andreone Udal Liburutegiko bazkide izan behar da. Lau maila desberdin egongo dira, adinaren arabera berezita: A Mailan 6 eta 7 urte artekoek hartu dezakete parte; B Mailan, 8 eta 9 urte artekoek; D Mailan, 10 eta 11 urte artekoek; eta E Mailan, berriz, 12, 13 eta 14 urte artekoek.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, idatziek derrigorrez euskaraz izan behar dute, eta inoiz argitaratu gabeko hiru orriko idazlanak, baina jorratu beharreko gaia librea izango da.

Aurkezteko epea

Idazlanak azaroaren 20tik 24 bitartean aurkeztu behar dira Andreone Udal Liburutegian, aipaturiko bi egun horiek barne. Lan bakoitzeko gutunazal itxi bat aurkeztu beharko da, eta kanpoaldean lanaren izenburua eta egilearen adina agertuko dira. Gutunean, berriz, helbidea, telefonoa eta izen-abizenak jarriko beharko dira. Idazkia, aldiz, kanpoan joango da eta gutunazala lanari grapaz josita.

Sari banaketa, berriz, abenduaren 15ean izango da, 19:00etan, liburutegian bertan. A Mailako saria eskuratzen duenak liburuak erosteko 100 euroko bi bale izango ditu eta B, D eta E Mailako irabazleek ere beste hainbeste. Bestetik, lanak berreskuratu nahi lituzkeenak, saria eman eta 2007ko urtarrilaren 31 bitartean izango du aukera, udal liburutegian. Epe horretan jaso ez diren idazlanak suntsitu egingo direla eman dute aditzera antolatzaileek.